

NOR DA HILTZAILEA? **ANOPHELES**



**Nagore Irazustabarrena
Uranga**

@irazustabarrena

Erroma, 1899ko abenduaren 4a. Giovanni Battista Grassi (1854-1925) zoologoa buru zuen ikerlari taldeak jakinarazi zuen malaria kutsatzeko bidea anopheles eltxoa zela. Horrenbestez, historiako hiltzailerik handienetakoren aurkako frogak lortu zituzten –edo hobe esanda hiltzailearen konplizearen aurkakoa, plasmodium parasitoek eragiten baitute gaixotasuna–.

Antzinaroan uste zuten gaixotasunaren kausa ur geldiak zirela; hortik datorkio malaria izena (italieraz, “aire txarra”). XIX. mende amaierarako aspaldi susmatzen zuten hura ez zela benetako jatorria, baina susmagarri nagusiaren aurkako frogarik ez zeukaten. Grassiren taldeari bururatu zitzaion boluntario osasuntsu bat erabiltzea eta kutsatutako eltxo batek hel ziezaion uztea. E-maila positiboa izan zen ikerlarientzat; ez hainbeste malaria harrapatu zuen boluntarioarentzat.

Baina frogak hura ez zen behin betikoa. Garai hartan Erroma paludismoaren arrisku eremuaren barruan zegoen, eta posible zen boluntarioak gaixotasuna beste bide batetik hartu izana. Arrisku txikia zuen eremu batean lortu behar zuten malaria kutsatzea. Horregatik, Grassik kutsatutako hainbat eltxo bidali zituen Londresera, Patrick Manson (1844-1922) mediku eskoziarraren la-



VIDYA RAJA

borategira. Mansonen seme Thurburn izan zen kasu honetan boluntarioa. Bera ere medikuntza ikaslea izaki, xehe-xehe jaso zuen gertatutakoaren berri: “Lehenengo eltxoak uztailaren 5ean iritsi ziren. Egoera kaskarrean zeuden (...) Bigarren bidalketa abuztuaren 29an iritsi zen, eta eltxoek etengabe heldu zidaten eskuetan (...). Irailaren 13a bitartean ederki nengoen. Goiz hartan makal sentitu nintzen eta 4:30etan oheratu nintzen, buruko min handiz, hotzikarek, ahul, bizkarreko eta hezurretako minarekin eta sukarrarekin”.

Handik bizpahiru hilabetera Grassik jakinaraziko zuenez, erruduna identifikatu zuten zalantza izpirik gabe. Baina ahalegin horrek ez zuen merezitako saririk izan.

Thurburn Mansonek hilgarria ez zen malaria aldaera leun bat harrapatu zuen eta bost egunetan osatu zen. Handik gutxira azken azterketak gainditu eta mediku titulua lortu zuen. Baina bi urte geroago hilko zen halabeharrezko tiro batek jota.

Grassik Nobel saria irabazteko aukera handiak zeuzkan ikerlan horri esker. Baina hilabete batzuk geroago Ronald Ross (1857-1932) bakteriologoa ondorio berdinerira iritsi zen eta, iraganeko tirabira batzuk medio, azkenean eskoziarrari eman zioten saria 1902an.

Eta Grassiren lanak nahiz ondoren iritsi diren guztiek paludismoa murriztea lortu arren, erruduna oraindik ez dago erabat kontrolpean; 2016an malariak 216 milioi pertsona gaixotu zuen, eta 445.000 hil. ■



FUNDACION DE FERROCARRILES ESPAÑOLES

Trenbideko langileak frankisten jomuga

2011n Aranzadiko kideek 59 gorpu gordetzen zituen 1936ko Gerra garaiko hobia ireki zuten Burgosen. “Trenbideetako langileen hobia” esan zioten, huraxe baitzen hildakoen lanbidea. Eta ez zen kasualitatea izan, trenbideko langileak izan baitziren frankisten errepresalia gogorren jasan zutenetakoak. Langile borroketa parte hartu ohi zuten, menderakaitzak eta

setatiak ziren eta frankistek sektorea garbitu behar zuten. Francisco Polo historiariaren arabera, 83.000 langile kaleratu zituzten, sektorean aritzen zirenen %88. 6.800 espetxeratu zituzten, 100 inguru heriotzara kondenatu eta ez dakigu zenbat hil zituzten inolako epaiketarik gabe. Berriki, Madrilgo Atocha geltokian haien omenezko eskultura bat jarri dute. ■